



Lagun agurgarriak

Jakingo duzueenez, joan den udaberrian GHEE-CEESPVren Gobernu Batzordea berriztatzeko hauteskundeak egin genituen. Ez zen hautagai-zerrendarik egon. Kargua utziko duen Gobernu Batzordeak jardunean darrai, baina berriztatu beharra dago.

Lanbide gaztea da gurea, hazten ari gara eta egiteko asko dago. Geu gara, Gizarte Hezkuntzan dihardugunak, gure lanbidearen etengabeko eraikuntza prozesuaren partaide izan behar dugunak. Gure lanbidea ez da lanbide finkatua ez eta denboraren poderioz zaharkitua ere; gure lantoki, ikastegi edo gizartean gaudela, erakundeen aurrean lanbide horren babesle nagusiak geu gara. Geuk egiten ez dugun guztia besteek egingo dute gure ordeaz eta, agian, garenaren definizioz kanpo geratuko gara.

Elkargoaren abenturaren parte izatea, lanbidea eraikitzea da, hazten jarraitzea eta lanbideari heldutasuna ematea. Dakiguna ez jakitearen eta ez erakustearen konplexuarekin apurtzea da. Askok da dakiguna, horri buruz gutxi idazten badugu ere.

Anima zaitez, eta parte hartu! Elkargokideekin topaketak ari gara egiten, egingo dako lana eta egitekoa zer den azaltzeko. Zeuk ere izango dituzu iradokizunak, ziur, eta gainera lanbideari laguntzeko zerbait egin dezakezu. Zatoz Elkargora! Galdetu! Zure zain gaude!

Elkargoko Batzordea Funtziotan

## GIZARTE HEZITZAILEEN ELKARGOEN KONTSEILU NAGUSIA



### ❖ **Gizarte Hezkuntzaren Mundu Eguna**

urriaren 3an ospatu zuen GHEKN-ek Kordobako Unibertsitatean, "Gizarte Hezkuntza gehiago Herritartasun handiagoa" lemapean.

❖ **Gizarte Hezkuntzaren VII Biltzarra, Kordoban 2016an** egingo da. *Proposatutako Lema eta Ardatzak honako hauek dira:*

### **"GIZARTE HEZKUNTZA + HERRITARTASUN +"**

*Lanbidea, gizartearen eraldakuntzaren sustatzaile*

Landutako ardatzak honako hauek izango dira:

**I. ARDATZA** Lanbidea (bir)pentsatzea, historia, nortasuna eta deontologia.

**II. ARDATZA** Gizarte Hezkuntza (berr)egin, herritartasuna sustatu eta bertan egotea.

**III. ARDATZA** Gizarte Hezkuntzaren Egotea.

**IV. ARDATZA** Gizarte Hezkuntza Irauliz, emozioetatik hasita. Sentitu, Pentsatu, Egin: Geure burua eta besteak zaindu.

## GHEE-CESPVREN BERRIAK

❖ Edukablok eta Deustoko Unibertsitateko Psikologia eta Hezkuntza Sailarekin batera **Urriak 2ko Gizarte Hezkuntzaren Munduko Eguna** "Lanbidea nora doa?" lemapean Deustoko Unibertsitateko Parainfoan jardunaldia antolatu genuen.

❖ **Deontologia Batzordea**

GHEE-CEESPVko Deontologia Batzordeak ikasturtea indarberrituta hasiko du. Batzordera Gizarte Hezkuntzako profesional berriak sartu dira, guztira 7 lagun, horietatik hiru unibertsitate esparrukoak, bi gizarte hezkuntzan lanean ari direnak eta beste bi gizarte hezkuntzan eta hezkuntzan, bietan, ari direnak; beraz, lanerako lan talde orekatua lortu dugu.

Lan hildo hauetan ariko gara:

**Prestakuntza:** elkargokide, unibertsitate (gizarte hezkuntz ikasle, zein irakasle) eta hirugarren sektoreko erakundeko lagunentzat zuzenduta. Batzordea bera eta Gobernuako batzordearentzat prestakuntza/hausnarketa egiteko ere bai.

**Instituzioekiko Harremanak:** BFAldundiko Etika batzordea, unibertsitatek, Gizarte Hezkuntza Elkargoko Kontseilu Nagusia, etab.

**Etika Dilemak eta Gaztazkaekiko eskaerei erantzun,** bai Euskal Erkidegoan, bai Estatu mailan.

**Gizarte Hezkuntzako Elkargo guztietan batzorde deontolgoiakoak eratzeko Gizarte Hezkuntza Elkargoen Kontseilu Nagusien eskaera/betekizuna.** Valentziako Kongresuan onartuta. Batzordeak eratzeko dokumentu bat egin da. Estatu mailan gaiaren egoera jasotzen duen mapa osatu dugu.

**Kode Deontologikoa eta batzordean sortutako hausnarketaren hedapena.** Horrela, lantokiko eraso gaia, sentzu zabalean, landu dugu, horrek erakundeei, profesionaleri eta erabiltzailei eragiten dizkien ondorioak ateraz. Laister informazioa hau triptiko baten bitartez elaraziko dizuegu eta beste balibideen bitartez geroago.

## LANBIDEAREKIKO INFORMAZIOA

### GIZARTE HEZITZAILEAK LANBIDE ETA HOBETUZ-EKO IKASTAROETAN IRAKASLE ARITZEKO GAITASUNA

LANBIDE aritzen da EAEn Europar Batasunean eta bertako kide den Estatu bakoitzean araututako PROFESIONALITASUN AGIRIAK egiaztatzen. LANBIDEk hartzen dituen arloen arteko prestakuntza batzuetan gizarte hezitzaileak gai dira irakasle izateko, lanbidean duten ezagupena dela eta; zehatzago esateko, [Gizarte eta Kultur Zerbitzuen arloko 1, 2 eta 3 Mailako prestakuntzetan](#).

Hala ere LANBIDEk, aipatutako prestakuntzen Profesionaltasun Ziurtagirien ikastaroa emateko, irakasgaitasuna eskatzen du eta, araudiari jarraituz, eskatutako irakasgaitasuna egiaztatzeko, [Enplegurako lanbide-heziketako irakaskuntza ziurtagiria](#) edo helduentzako lanbide prestakuntzako metodologia didaktikan baliokide den prestakuntzako izan behar duela.

Irakasgaitasun honetarako Profesionaltasun Agiri honetatik salbuetsita honako hauek baino ez lirateke egongo:

- Pedagogia, Psikopedagogia eta Irakasle titulazioa, edozein modalitatetan, dutenak, edo Psikologia gradua edo Pedagogia gradua edo Psikopedagogian espezializazioko gradu-osteko titulazioa dutenak.
- Aurreko atalean adierazitakoa ez bezalako unibertsitate titulazio ofizial bat izan eta Hezkuntza Ministerioak igorritako Espezializazio Didaktikoko titulua, edo baliokidea, dutenak.
- Azken zazpi urteotan lanerako heziketan edo hezkuntza sisteman gutxienez 600 orduko irakasle jarduna egiaztatua dutenak.

Horrekin bat eginez, eta nahiz eta Gizarte Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Orokorrek bere desadostasuna adierazi eta Hezkuntza eta Unibertsitate Ministerioari aitortpena eskatu dion, Gizarte Hezkuntzan Diplomatura/Gradu titulazioa ez da nahikotzat hartzen salbuetsita geratzeko.

Egoera honetan, gizarte hezkuntzan diploma/gradua duenak bi bide izango lituzke:

1.- Irakasgaitasuna epaimahai baten aurrean egiaztatzea, bere irakasle jarduna kontuan hartuta –baldin eta azken zazpi urteetan 600 ordu baino gutxiago egiaztatuta baiditu-, hori nahiko den edo Enplegurako Lanbide Heziketarako Irakasle Profesionaltasun Ziurtagiriaren modulu osagarriren bat beharko lukeen erabakitzeko.

2.- Lanbidek homologatutako zentroren batean Enplegurako Lanbide Heziketarako Irakasle Profesionaltasun Ziurtagiria lortzeko 380 orduko ikastaroa egitea (340 ordu teoriko eta 40 praktiketakoak).

**Irakasgaitasun hau** lanerako prestakuntzarako beste ezertarako ez dela adierazi behar da, eta ez dela Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza Zikloetarako; izan ere, hauetan titulazioak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zerrendetan sartzeko balio izango luke.

## INTERESGARRIKOAK

Programa de  
**TRATAMIENTO  
EDUCATIVO Y TERAPÉUTICO  
POR MALTRATO FAMILIAR  
ASCENDENTE**


AGENCIA DE LA COMUNIDAD DE MADRID PARA  
LA REEDUCACIÓN Y REINSERCIÓN DEL MENOR  
INFRACTOR

María González Álvarez - Mireia Pizar Gombalves - José Luis Orozco Gómez  
Nerea Martín Rodríguez - Clara González Sierra - Ignacia Fernández Alca  
Luisa María Pérez - Algoriza Expósito Fernández  
Clínica Universitaria de Psicología, Universidad Complutense de Madrid



La violencia familiar ascendente se ha convertido en un preocupante fenómeno social que la Agencia de la Comunidad de Madrid para la Reeducción y Reinserción del Menor Infractor lleva varios años atendiendo de forma específica. El conocimiento profundo del fenómeno, el estudio de las variables

clínicas que ayudan a definirlo, la experiencia y especialización de los profesionales, todo ello, junto al trabajo compartido con la Clínica Universitaria de la Universidad Complutense de Madrid se exponen en el Programa diseñado [Documento Completo](#)



**Gazteen Argazkiak 17.** Lan honek 15 eta 29 urte bitarteko gazteriaren aburu eta jarrerak analitzea helburu ditu. Hainbat gizarte eta politika gai aztertzen du eta 30 urte baino zaharragoen iritziekin alderatu, baita adierazle nagusien eboluzioa ere txertatu ditu.

[Dokumentu osa](#)

# gizarte ratuz

SIIS ergitaratutako Gizarte Zerbitzu eta Gizarte Esku-hartze dokumentuen boletina [GI-ZARTERATUZ 43 Zbk](#)



REVISTA DE  
EDUCACIÓN  
SOCIAL

RES está preparando el número 20 con el título **Derechos Humanos y Educación Social**.

Se pueden enviar colaboraciones hasta el 15 de noviembre a [res@eduso.net](mailto:res@eduso.net)

Información sobre próximo número <http://www.eduso.net/res/19/articulo/proximo-numero-derechos-humanos-y-educacion-social>

Información de cómo colaborar <http://www.eduso.net/res/colaborar>



**Acompañamiento especializado con jóvenes en exclusión en : una experiencia de investigación-acción.** *Aitor Avila* pp 111 a 120 en [ZERBITZUAN Nº 55](#).



**¿Quién te quiere a ti? Guía para padres y madres. Cómo educar en positivo.** Save the Children. [Documento Completo](#)

**URRENGO BOLETINETAN SARTZEKO PROPOSAMEN ETA IRADOKIZUN ceespv@ceespv.org RA BIDALI AHAL DITUZUE. ERA BEREAN, ZUEN INTERESEKOA DEN EDOZEIN ESPARRUTAN PARTE HARTZEKO GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZTE.**